



Urruñako Herri Etxeak kontratatzen du

Bio baratzezaintza eta pedagogia etxalde baten sortzea 2 hektarea inguruko herri gune batean

Urruñako herriak LABORANTZA BIOLOGIKOAn esperientzia duen BARATZEZAIN bat xerkatzen du herriarekin kontratupean lan egiteko.

Proiektua bere osotasunean sortzeko ardura ukanen duzu, herriko laborantza eremuan etxalde batekin abiatuz .

Etxaldearen ekoizpenerako eta plantan ezartzeko beharrezkoak diren inbertsioen inbentarioa eginen duzu.

Laborantzako egutegia plantan ezarriko duzu eta ekoizpena planifikatuko duzu behar den barazki eta fruitu biologikoen bolumenaren arabera, sukaldeburuarekin eta ingurumen zerbitzuko arduradunarekin adostusanean.

Urte guzian barazki eta fruitu biologikoak ekoiztea eta banatzea da xedea, nagusiki herriko sukalde nagusiaren baitan eta GEUZen (janari saltegi soziala, janari laguntza), bai eta aztertzen ari diren beste banaketa bideak ere. Egun pedagogikoak animatuko dituzu eskola eta herritarrentzat.

Esperientzia bat duzu eta baratzezaintza biologikoaren praktikak menperatzen dituzu. BPREA edota laborantzarako diploma dituzu, B gida baimena duzu eta laborantzarako ibilgailuan gidatzeko ohitura duzu, zerbitzu publikoaren zentzua duzu.

Autonomoa zira, disponibilitatea eta esperientzia ekarriko dizun proiektu berritzaile batek motibatzen zaitu, (oihangintza, permakultura, bio intentsiboa, etab.)

Xehetasun gehiago hemen : <https://www.emploi-territorial.fr/offre/o064240408000808-chef-fe-culture-maraichage>

Zure hautagaitza e-mailez bidal dezakezu helbide honetara: mairie-urrugne@mairie-urrugne.fr

Edo postaz Urruñako Herriko etxera/Giza Baliabideen Zerbitzua/Herriko Etxeko plaza – 64122 Urruña